



Proposamen didaktiko hau Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua dago. Jarduerak, Herritartasun eta Giza Eskubideen, Gizarte Zientzien, Etikaren areetan, tutoretzetan, etab.etan baliagarri gerta daitezke; baita gai horretan interesik duen zeinahi irakaslerentzat ere. Kontua, Kopnhageko Goi Bileraren transzendentziaz eta guk horretan dugun arduraz gogoeta egitea da.

## Kopenhage: azken deialdia



### Nazioarteko goi bilera 1. eta 2. orr.

**Helburuak:** aurretiatzko kontzeptu eta pertzepzioak azalaraztea. Nazioarteko goi bilera baten izaeraz ikuskera globala ematea, Kopnhageko Goi Bilerari zehazki helduta. Nazioarteko goi bilera batean esku hartzen duten aktoreak eta hauek betetzen dituzten rola identifikatzea. Azpimarratu gertakizun horietan gizarte zibilak duen rola eta, ondoren, agendan eta jarraipenean eragina izateko duen ahalmena.

**Orientazioak:** nazioarteko goi bilera bat zer den eta bertan esku hartzen duten aktoreen eginkizunak zein diren aurkeztu dugu testuetan. Jarduera honetarako abiapuntu interesgarria haxe izan daiteke: ikasleak zein goi bilera dituen gogoan, horietaz nolako irudipena duen eta, horiek abiagune harturik, testuetan agertzen den informazioa lagungarri, gai az informazio globala eskuratzea. Interneten sartzeko aukera baldin badu, informazioa gaurkotu egin daiteke, aholkaturiko web orriak bisitatuz.

### Zertara lotu ginen eta zer bete dugun 3. orr.

**Helburuak:** datu estatistikoak aztertzea. CO<sub>2</sub>-ko emisio desberdinen (herrialdeko eta herrialde bakoitzeko biztanle kopuruko) artean dagoen erlazioaz gogoeta egitea. Aztertu Kioton harturiko konpromisoak zein izan ziren eta, egun, han izaniko herrialde bakoitzak agindutakoa bete ez izanaren gradua zein den.

**Orientazioak:** proposatu diren jarduerak, datuen analisisa abiagune harturik beteko dira, talde txikitik. Kiotoko Protokoloan herrialdeek harturiko konpromisoak berrikustea baliagarri izan liteke: horretarako, <http://unfccc.int/resource/docs/convkp/kpspan.pdf> web orrian sartu edo, bestela, proposamen didaktiko honekin doan informazio dossieraz baliatu gaitzake. Era berean, emisioen bolumenera begiratuz eta hortik epe laburrean ondorioztatzen denaz edo ondoriozta daitekeenaz hausnarketa eginez, hainbat absentsia detektatu eta gogoeta egiteko bidezotasuna gogoratzea ere komeni da.

### Ondorioak zein diren eta nork nozitzen dituen ikertu behar 5. orr.

#### Urruneko istorioa...

**Helburuak:** izaniko akatsak berriro gerta ez daitezen, oinarrizko irakaspen modukoak izan daitezkeen gertaturiko gizakiaren bizipen funtsezkoak historian barrena atzematea. Baliabide bakar bat –petrolioa– euskarri duen sistema sozio-ekonomiko honen garapen eta aurrerapenaren ahuleziak atzematea. Aztertu nola gure eguneroko bizimoduan egiten ditugun gauza gehienak baliabide mugadun batekin lotuak dauden, baliabide hori klima-aldaketaren eragile diren negutegi efektudun gasen (NEG) emisioen arduradun izaki.

**Orientazioak:** dinamikaren abiagunea norbanakoaren ariketa izanik, hori, ikasgelan do taldean partekatua izan daiteke edo, bestela, talde txikitik burutu beharreko lan gisa; gero, horren sintesia, eldunak talde handiari aurkeztuko lioke. Hobe litzateke, ondorioei esker, arazoaren garrantziaz eta sistema sozio-ekonomiko honen ahuleziaz jabetuko bagina eta, hitz batez, gure bizitzaren euskarritzat hartzen dugun denaren ahuleziez konturatuko bagina, erreakzionatu eta planetako oraingo eta geroagoko biztanle guztion bizitza bideragarri egingo luketen ordezko konponbideak planteatzen hasteko.

#### Prentsak zer dioen

**Helburuak:** pertsonentzat, batez ere, klima-aldaketak dakartzan ondorioetako batzuk albistean artean bilatzea eta, bide batez, neurri zorrotzat ez hartzekotan, etorkizunean nolako albisteak gerta litezkeen aurreikustea. Klima-aldaketaren milioika biktima horiek, oro har, ahulezia larrienak dituzten eta, aldi berean, negutegi efektudun gasen emisioetan erantzukizun gutxien duten pertsonak direla atzeman edo egiaztatzea.

**Orientazioak:** kontua da ikasleek hautaturiko albisteetako bakoitzean arakatzeko-lanean aritzea, arazoa dagoeneko pairatzen duten eta, seguruenik, lehen edo geroago nozitu duten pertsonen ikuspegitik egoeraren izariaz jabetu ahal izan daitezten. Azterketa horri esker, negutegi efektudun gasen emisioetan erantzukizun gutxien duten edo erantzunik ez duten pertsonen ondoriorik latzenak nozitzen dituztela nabarmen utzi nahi da. Behin eta berriz adierazi behar zaie ikasleei: injustizia

larri horren oihartzuna harrotzearekin batera, herrialde gara-tuek beren erantzukizuna bere egin behar dutela eta aitzakiak emateari utzi behar diotela zabal dezaten, horrela biktimak lagundu ahal izango ditugu eta horrela klima-aldaketaren aurka borrokan aritzeko ezinbesteko neurriak hartu ahal izango dira. Era berean, errealitate hau eta hedabideek behin eta birritan es-plizitu samar errepikatzen diguten mezua –migrazioek dakar-ziguten eragozpen larriak edota natur katastrofeek sortarazten dituzten kalte latzak– konparatzea bidezkoa izan liteke.

## Gutxiago gehiago da 7. orr.

**Helburuak:** gure bizimodu-eredua eta horren iraunkortasuna auzitan jartzea. Gogoeta egin: eguneroko jarrera eta jokaerak ezinbestekoak badira ere, ez dira aski arazoari konponbidea emateko eta, horrenbestez, herritarrek jarduteko alternatibak bilatu beharra dago.

**Orientazioak:** lehendabiziko jardueran –testuen bidez eta, batez ere, irudiak irakurtzearen bitartez–, gutxitze kontzeptu edo ideia sartzen ahalegintzen gara. Geure bizitza-eredua eta horren iraungarritasuna auzitan jartzeko balio beharko liguje jarduerak. Txinako Ingurugiroko ministroaren adierazpenek go-raka doazen herrialdeez mintzatzeko motiboa eman beharko lukete; era berean, *Global express*-en beste jarduera batzuek eragiten dituzten emisioen gaineko datuekin aldera daitezke. Bigarren jardueraren bitartez, gutxitze edo murriztearen efek-tuetako batzuk era erraz eta soilean azaltzen saiatu gara, bi gauzarekin lotzeko: ataleko tituluarekin (“Gutxiago gehiago da”) eta jarduteko herri-alternatibak bilatzeko premiarekin.

## Hegoaldeak mobilizatzeari ekin dio 9. orr.

**Helburuak:** izaniko akatsak berriro gerta ez daitezen, Hegoaldeko herrialdeen ekimenen berri izatea, gizarte zibilaren erantzukizun eta konpromisoa nabarmenduz; izan ere eta estereotipoak go-rabehera, gizarte horrek arazoa salatu eta horren kontra dihar-duelako. Hegoaldeko herrialdeak, globalizazio ekonomikoak ezarritako garapen-eredu eutsiezinenaren aurkako alternatiba bi-deragarrien sustatzaile eta protagonistatzat hartzea.

**Orientazioak:** adibideetako bakoitzaren bitartez, ingurugiroa errespetatzen duten eta klima-aldaketaren arduradun zuzena den sistema horren alternatibako garapen lokaleko ereduak eza-gutu ahal izango ditugu. Hori ez ezik, beste inbitazio bat ere egin dakieke ikasleei: besteak beste, planetan guk bizirik irautea ere arriskutan jartzen ari den kontrol gabeko hazkuntza bera ere gel-diarazteko, egiazko iraultza planteatuko duten egintza eta sis-tema alternatiboekin bat egin dezaten. Jarduera horrek, jakina, topikoak birrindu behar ditu: badira alternatibak eta horiek ez datoz beti Iparraldeko herrialdeetatik; pertsona, biktima izateaz gainera, batez ere protagonista da. Beste adibide batzuk ere ba-daudenez, hoberena da ikasleak beren kabuz bila ibili daitezen.

## Goi bilera gure afera ere bada 10. orr.

**Helburuak:** argudioak agertzea, elkarrizketan eta eztabaidan aritzea sustatzea. Herritar global garen aldetik, dagozkigun erantzukizunez hausnarketa egitea. Tokikoaren eta globala-ren artean dagoen loturaz jabetzea.

**Orientazioak:** *Global express*-eko lanean zehar aztertutako guztia gogoan, Goi Bileran esku hartuko dutenei dokumentua igortzea proposatuko dizuegu. Dokumentu horrek goi bilerako agendan sartzeko gai bat eduki beharko luke, bertan argudioak eta, ikasgelako kideen iritziz, hartu behar diren konpromisoak daudela. Ikasgelan eztabaida sortu eta eragitea garrantzizkoa da baina proposamen bakar bat atera dadin lortu behar da. Proposamen hori denek onartu eta onetsi behar dute, goi bi-leretan lan egiteko ohiko moduari buruzko ideia (adostasuna bilatu beharra dagoela, alegia) sendotzeko. Kontuan izan de-zagun, era berean, Kopenhageko bileran politikariek hartuko dutela parte eta bertan erabakiko diren konponbideek globa-lak izan behar dutela, hots, guztien onera begirakoak.

**Nor da nor goi bilera batean?** Nazioarteko goi bileretan akto-reek betetzen dituzten paperak aztertzeke xedez, **rol joko** txiki bat egitea proposatzen dugu. Ikasleak talde hauetan banatuko dira:

- **Gobernuetako ordezkariak:** herrialde garatuetakoak dira, ba-tik bat. Horietako batzuek, emisioen mailari eustearen alde-ko herrialdeen proposamenak (emisio-eskubideak beste he-rrialde batzuei erosi behar badizkiete ere) aurkeztu beharko dituzte eta beste batzuek, berriz, emisioak murriztearen al-dekoak. Edonola ere, ordezkariak boto-emailearen nahia bete behar duela izango du gogoan beti ere; beraz, beren bizi-maila mantentzera zuzenduko dira proposamenak.

- **Nazioarteko erakundeak:** nazioarteko enpresa multinazional handiek eraginik, borrokan jardun behar dute, orekan: batetik, enpresa eskerga horien interesei erantzutea eta, bestetik, be-ren irudia iritzi publikoaren aurrean ez zikintzea.

- **Gobernuz Kanpoko Erakunde eta kolektibo sozialak:** gizarte zibil kontzientziadunak ez ezik, planetako pertsona guztien interesak ere ordezkatzan dituzte. Horrenbestez, klima-al-daketa lehenbailehen geldiarazteko neurriak hartzearen alde-ko dira eta, beraz, bestelako garapen-eredu bat planteatuko dute. Goi bileran zuzenean ezin dute esku hartu baina parte hartzaileen batekin bilerarik egin dezakete, beren mundu-ikuskerara helarazteko.

- **Hedabideak:** beren deontologia profesionalak agindu bezala jokatuko dute, gertatzen ari dena kontatzerakoan eta beren soldata ordaintzen duten korporazio handien aginduak betet-zerakoan.

Goi bileraren lehen partean, bilkurak hasi aurretikoan, herrialde bakoitzak bere estrategiak eta bere proposamenak landuko ditu eta, bien bitartean, Gobernuz Kanpoko Erakun-deak herrialderen bat konbentzitzen ahaleginduko dira, beren posturen alde jardun dezan. Aztergaien agenda ere lehen fase horretan osatuko da eta bertan Gobernuz Kanpoko Erakun-deek hitza izango dute, baina ez botoa.

Bigarren fasean, berriz, gobernuen ordezkariak eta nazioar-teko erakundeak bilkura egingo dute, harturiko konpromiso na-gusiak jasoko dituen dokumentua eztabaidatu eta osatzeko. Fase honetan Gobernuz Kanpoko Erakundeek ezin dute esku hartu, baina kanpotik presioa eragin dezakete, era baketsuan eta isilik. Hedabideek informazioa jasoko dute, gauzak gertatu ahala, beren iritziz, nagusi edo nabarmenenak diren gertaka-riak islatuko dituzten titullarrak eratzeko. Jarduerari amaiera emateko, konpromiso globalen eta konpromiso pertsonalen arteko loturak bilatu behar dira.